



0003 ZBK.



EAJ-PNVk Zalla Bairen gobernuaren lehen urteko gelditasuna kritikatu du. Jeltzaleak arduratuta daude "Herriak atzerako urratsak eman ditu"

EAJ-PNVk lehen aldiz gobernatzen ez duen udala eratu zeneko lehen urtea betetzear, eta Zalla Bai taldearen aurrean gehiengo osoa galdu zuelarik, talde jeltzaleek azken hamabi hilabete hauek aztertu nahi izan ditu: "Hausnarketa aldia izan da, berrantolatze eta ilusioa mantentzeko", baina beren iritziz, ziurgabetasuna da nagusi, herriak bizi duen egoerak eraginda. "Urte bete igaro da, eta kezkatuta gaude herria geldituta dagoelako, atzerapen argian dago; eta are okerragoa dena, udal taldeari ez diogu Zallaren aurrerapenerako ideiarik edo planik antzematen". Urte beteko aldirian, Zalla Bai taldea azukre koxkoraren gisara urtu da. Baliabiderik ez du, ideiarik ez du, hitz hutsalak baino ez ditu".

Oposizioko lehen alderdiak egitasmo hau aurreko korporazioak egitea pentsatu eta oraingoak eragotzi dituen proiektuekin alderatu ditu. "Gogoratu egin behar dugu udalean kontu garbiak utzi genituela, eta udal indartsua utzi genuela, Santanderrera tren geltokiko egitasmoa, enparantzako aterpea, Hizkuntza Eskola Ofiziala handitzeko egitasmoa, Zallarako aurrekusi zen IATen instalazioa eta medikuntza espezialitateetarako zentroa egiteko. Diru bat zegoen gure herrian zerbitzuak eta garapenak bermatzen zituena".

"Horregatik guztiagatik, itxaropen mezua zabaldu nahi dugu, eta argi eta garbi esan nahi dugu desgobernu honek iraungitze data ere baduela: 2015eko maiatza". Geratzen diren hiru urteotan, "EAJ-PNVren helburua izango da auzokideen konfiantza berreskuratzea, ongizatearen eta oporatasunaren alde eginez"

Deia, 2012ko ekainaren 2 a

ZALLAKO EAJ-PNVK BIDEEN SEGURTASUNA BERMATZEA ESKATU DU

Apirilaren amaieran, Osoko Bilkuran aurkeztu genuen Lanzagorta etorbidean Maristen ikastetxearekin egiten den bidegurutzeko semaforoak anbarrean uzteko erabakia ezetzatzeko proposamena.



Hainbat izan dira, gure Udal Taldeko kideengana, bidegurutze horretako arriskuaren berri ematera eta kexatzera etorri diren herrikideak.

Istripu batzuk ere izan dira, eta hainbat ezusteko ere. Horrek denak kezka eragin izan du gure herritarren artean.

Gure ustez, Udalak neurriak hartu beharko lituzke, trafikoa era zuzenean arautzeko.

ZALLAKO EAJ-PNV ASTEBURUETAKO GAUEKO GARRAIOAREN ALDE



Zallako EAJ-PNVk mozioa aurkeztu du, Bilborekin komunikatzeko garraioa asteburuetan gauzez eskaintzeko helburuarekin, aurreko legegintzaldian hasi ziren elkarrizketak eta gestioak berrabiatzeko eskaria planteatzeko

ZALLAKO EAJ-PNVK HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO ORDUTEGIAK ZABALTZEA PROPOSATU DIO UDALARI



EAJ-PNVk txostena eskatu du HEOn zabaltze lanei eta Haurreskolaren kokapen berriari buruz. Baina agiri honetan ez da handitze lanen edo kokapen berrien inguruko balorazio ekonomikorik aipatzen.

Zallako EAJ-PNVk ikasgelak handitzeko egitasmoa aurkeztu zuen, gelak handitzea eta zentro bien oraingo kokapena mantentzea proposatuz.

Ziurgabetasun eta gestio lan eskas honen aurrean, Zallako EAJ-PNVk Haurreskola eta HEOn Aranguren mantentzeko gestioak egitea proposatu nahi dio udalari.

Hizkuntza Eskolako ordutegiak zabalduz, Zallako udalak toki berria erosteak suposatuko liokeen dirua aurreztuko luke, Hizkuntza Eskolako toki arazoak konponduko liriteke eta Haurreskola ere Aranguren mantenduko litzateke.

EAJ-PNVK GAZTE POLITIKEN KOORDINAZIOA ESKATU DU

Zallako EAJ/PNV- k Zallako Udaletxeak "Udal Gaztedi- an" parte hartzeko proposatzen du. Gazteriaren politiken koordinazioa bermatzeko asmotan, esfortzuak arrazionalizatzeko eta emaitzak optimizatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak "Udal Gaztedia" sortu du, horren helburua adostasun prozesuak sustatzea, eztabaidak bultzatzea eta gazteriaren politiken instrumentu dinamizatzailerak erabiltzea, esfortzuak bateratzea eta bere ustiape egokiarentzako neurriak suspertzea da.



Aldi berean haur tailerrak egon ziren gurasoak lasatasunez paseatu ahal zitezela txakolinaren postuetatik.



Joan den maiatzaren 20an, ARDO EGUNAREN ospakizunean, bi ezagun instituzional nabarmenen bisita izan genuen, Irene Pardo, Bizkaiko Foru Aldundiko nekazaritza eta abeltzaintzaren ahaliduna eta Josu Erkoreka, Madrileko Gorteetan ahaliduna eta EAJ/PNV- ko talde legebiltzarraren bozeramailea. Biak uri buru batzarreko gonbidapena adeitasunez onartu zuten eta gero gogo handiz erantzun zioten agurtzera edo zenbait kezka egitera hurbildu zen jendeari.



Persona ugari agurtzera eta argazkiak ateratzera hurbildu ziren gonbidatuta zeuden ospetsuekin.



AHO BATEZ ONARTUA, ZALLAKO EAJ-PNVK PERTSONEN BERTINTASUNAREN ETA BIZIKIDETZAREN ALDE AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA 2012- KO MAIATZAREN 17- KO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA, HOMOFOBIA, LESBOFOBIA ETA TRANSFOBIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Gay, lesbiana, transexual, bisexual eta transgenero taldeak pairatzen dituen diskriminazioekin behin betiko amaitzeko, ezinbesteko gertatzen da gizarteak bere osotasunean gaitzestea eta aldi berean esparru guztietan esku hartzea. Eta hori azaldu zen maiatzaren 17ko adierazpenean.

EAJ-PNVk maiatzaren 17ko adierazpena onartzea proposatu du, homofobia, lesbofobia eta transfobiaren aurkako egunerako.

"Aniztasun eta Askatasun Sexuareko Adierazpena" izenekoan oinarritzen den testuaren bidez, Udalari eskatzen zaio aukera sexual eta genero nortasun guztiak normalizatzeko ahaleginak egin ditzala eskola kirolean eta kirol federatu eta profesionalean, Adierazpen hau zabaltzeko eta aldarrikatzeko helburuarekin.



Igaro den maiatzean, Zallako alkateak Antonio Basagoitiri egin zion harrera Udaletxe atean bertan. Interesgarria litzateke bisita horren arrazoia jakitea.

KONEKTA ZAITEZ

<http://www.facebook.com/ZallakoEajPnv>
<http://zalla.eaj-pnv.eu>
zallakoeajpnv@gmail.com
 móvil: 644254665